

Bergarako 33 espazio Gune Anitza zigilura atxiki dira

- Bergarako Udalak, Harrotasuna taldeak eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) ahalbidetu dute
- Espazio fisiko zein birtualek aniztasunarekiko aldekotasuna adierazteko proiektua da

Bergaran, 2019ko ekainaren 27an. Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK), Bergarako Udalak eta Bergarako Harrotasuna taldeak LGTBI+ kolektiboak bistararazi eta eskubideak aldarrikatzeko antolatutako programazio zabalaren barnean, Gune Anitza zigiluarekin bat egiteko aukera eman zaie herriko espazio, saltoki, elkarte edo guneei.

Ikusgarritasun horri indarra emateko “Bergarako Udaleko balkoian ortzadarraren bandera eta hiruki arrosa astelehenetik” egon direla azpimarratu du Udalak.

Espazio fisiko zein birtualentzat

Maialen Olabek, EGK-ko presidentea, azaldu du Gune Anitza zigilua berdintasun lan-arlotik jorratutako egitasmoa dela, “aniztasunarekiko aldekotasuna era positiboan adierazteko eta erakusteko” modu bezala. “Espazio fisiko zein birtualentzat dago pentsatua” gazteek bizitzako esparru orotan “gorputz, identitate eta izaera anitzak” nahi dituztelako. Ildo horretatik, EGK-ko presidentea nabarmendu du Gune Anitza izateak “konpromiso bat hartzea” suposatzen duela, hau da, “espazio horretan aniztasuna bermatuko dela” adierazi nahi duela zigiluak.

Era berean Olabek adierazi du ekimenaren helburua “norberak bere identitatea modu askean eta inposiziorik gabe garatzea” dela, pertsona bakoitza “emakume, gizon, intersexual edo pertsona ez bitar gisa garatu eta adieraz dadin”.

Azkenik, Munibe Plazan egindako ekitaldian interesa erakutsi duten espazioei zigilua eman zaie eta, amaiera emateko, talde argazkia atera da. Olabek aukera baliatu du atxiki diren 45 espazioei eskerrak emateko.

Egitarau zabala hurrengo egunetarako

Horretaz gain, Bergarako Udalak “hurrengo egunetarako egitarau zabala antolatu dela” oroitu du, besteak beste:

-Ekainak 27. Performancea. Irala kalean, 19:00etan.

-Ekainak 28. Bailarako mani-festa-akzioa Oñatiko herriko plazatik, 20:00etan.

-Ekainak 28. Pintxada ska-reggae-rocksteady, 22:30ean. Koordinadora TransMarikaBollo Feministak antolatuta. Oñatin.